

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 554

*IRAGARKIA, 2025eko urtarrilaren 13koa, Trantsizio Energetikoko sailburuordearena, zeinaren bidez jendaurreko informazioan jartzen baita «Laguardia-Elciego» izeneko zirkuitu sinpleko 13,2 kV-ko aireko linea berrizatzeko proiektua, 5. eta 228. euskarrien artean, Guardiako udal-mugartean (Araba).*

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak 144. artikuluan ezartzen dituzten ondorioetarako, eta testuaren azken xedapenetako lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregela-menduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, jendaurreko informazioan jartzen da proiektu hau, baita eskatzaileak nahitaez desjabetzekotzat jotzen dituen ondasunen eta eskubideen zerranda zehatza eta banakoa ere.

- Eskatzailea: I-DE Redes Electricas Inteligentes, SAU (IFK: A95075578).
- Eskaera: aurretiazko administrazio- eta eraikuntza-baimena, eta onura publikoaren deklarazioa.
- Helburua: instalazioak hobetzea eta linearen ahalmena handitzea.
- Erreferentzia: 01ATY 202400029. «Laguardia-Elciego» 13,2 kV-ko TEA berritzea, 5. eta 228. euskarrien artean, Guardiako udal-mugartean (Araba).
- Linearen ibilbidea: Guardiako udal-mugartea (Araba).
- Proiektuak ukitzen dituen ondasunak eta eskubideak: iragarki honen eranskinean zehaztutakoak.
- Aurrekontua: 59.489,45 euro.

Horren berri ematen da, guztiek jakin dezaten, eta batez ere lurren jabeek eta proiektuak ukitzen dituen gainerako titularrek jakin dezaten; horien zerranda iragarkiaren amaieran agertzen da. Proiektua aztertu ahal izango da Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz), dagokion udalean edo Interneteko [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean (Energia eta meategiak ataleko proiektuen jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaur-larritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta nahi duenak egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu (bi ale) aipatu zentroetan hogeit eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 13a.

Arabako lurralde-ordezkarria ez dagoenez, eta 410/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriko e) apartatuan ezarritakoa betez (410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena).

Trantsizio Energetikoko sailburuordea,  
IRANTZU ALLENDE FERNÁNDEZ DE ERIBE.

2025eko otsailaren 4a, asteartea

## ERANSKINA

## UKITZEN DIREN ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

## «LAGUARDIA-ELCIEGO» IZENeko ZIRKUITU SINPLEKO 13,2 KV-KO AIREKO LINEA BERRIZTATZEA, 5. ETA 228. EUSKARRIEN ARTEAN

## GUARDIAKO UDAL-MUGARTEAN (ARABA)

Finka proiektuan	Poligonoa zk.	Lurzatia zk.	Izaera	Titularra	Ukipenak			
					Linearen luzera (m)	Eroaleen zabalera (m)	Hegaldiaren zortasun-eremua (m <sup>2</sup> )	Zuhaitzen ebaketa-zona (m <sup>2</sup> )
2	5	148	Bigarren mailako lehorreko mahastia	Fustino Luis Ayala Fernandez	169,95	4	1.520,75	--
				M <sup>a</sup> Teresa Ayala Fernandez				
3	5	146	Lehenengo mailako lehorreko mahastia	Grupo Solar de Samaniego SLU	3,9	4	36,25	--
				M.Presentación Callejo Chavarri				
4	5	1696	Bazkarako etze bakarra	Sara Maria Beistegui Vallejo	-	-	16,6	--
				Olga Beistegui Vallejo				
5	5	175	Bigarren mailako lehorreko mahastia	M.Presentación Callejo Chavarri	29,4	4	189,9	--
				Sara Maria Beistegui Vallejo				
13	5	194	Lehenengo mailako laborantza ureztatua	Olga Beistegui Vallejo	-	-	20,77	--
				Pilar Fernandez Lopez				
14	5	1566	Lehenengo mailako laborantza ureztatua	Juana Fernandez Lopez	-	-	112,12	--
23	5	1783	Bigarren mailako lehorreko laborantza	Jesús Maria De Bustos Calvo-ren oinordekoak	6,55	4	28,53	--
24	5	219	Hirugarren mailako lehorreko mahastia	M. Santos Garcia Ugarte	11,53	4	69,77	--